



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 22a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Foru Komunitateko eredu industrial, ekonomiko eta merkataritzakoari eta merkatuak exijitzen duen modernizazioari egokitzeko gaitasunari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du aniztasun, askatasun, ekitate eta aukeren berdintasunaren balioek izan behar dutela Nafarroako hezkuntza sistemaren ezaugarria, Hezkuntzako kontseilaria gaitzesten du, eta haren kargugabetzea eskatzen du. Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten du Hezkuntzako kontseilaria, Hezkuntza Departamentuko Enplegu Eskaintza Publikoaren deialdia dela-eta egin duen kudeaketarengatik eta hartu dituen erabakiengatik. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa eta neurri zehatz batzuk ezar ditzan, Nafarroako Erriberako langabezia-egoerari aurre egiten laguntzeko, Merindade horren garapen jasangarria sustatuz. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren Egunaren programa ofizialean sar dezan Xabierko Gazteluko basilikan San Frantzisko Xabierkoaren ohorezko ekitaldia egitea. Mozioa erretiratzea (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2015-2016 ikasturtearen hasieratik 2015eko abenduaren 31ra arte Nafarroako ikastetxeetan “berandu sartzea” denaren bitartez hasi diren ikasleei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, amaitu gabe dauden gaiak lantzeko Hezkuntza Ministerioarekin izandako bilerei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun garraioaren esleipena duen enpresari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, programa-akordioan jasotako enplegu eskaintza publikoa dela-eta Osasun Departamentuak daukan aurreikuspen eta epeei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (11. or.).
- Galdera, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan dauden ikasle etorkinen kopuruari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (12. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Araua, Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako bere ordezkari gisa izendatzekoak diren bi kideak hautatzekoak (13. or.).
- Foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jauna Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldean sartzea (14. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Foru Komunitateko eredu industrial, ekonomiko eta merkataritzakoari eta merkatuak exijitzen duen modernizazioari egokitzeko gaitasunari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko jabeldura, Foru Komunitateko eredu industrial, ekonomiko eta merkataritzakoari eta merkatuak exijitzen duen modernizazioari egokitzeko gaitasunari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Miguel Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2011ko martxoan onetsi zen Ekonomia Jasangarriari buruzko Legea –2/2011 Legea, martxoaren 4koa–, zeinaren helburu nagusia baitzen “ekonomia lehiakorrago baten, berritzaileago baten garapena sustatzea eta bizkortzea, gai izanen dena produkzio-sektore tradizionalak berritzeko eta enplegu egonkor eta kalitatezkoak eskatzen dituzten jarduera berriei irekitzeko”.

Proposatutako produkzio-eredu berriaren oinarrian dauden ardatzak dira informazio-gizartearen

garapena, I+G+B sistemarekiko harreman-esparru berri bat eta lanbide heziketako sistemaren erreforma muntadun bat. Hitz batez, egungo egoera garai berrietara egokitzea, epe ertain eta luzeko etorkizun bat gogoan.

Nafarroa ez dago produkzio- eta ekonomia- arloko aldaketetatik salbu, eta neurri sakonak behar ditu, epe luzeko ikuspegiz ziurtatuko dutenak gure Foru Komunitateak aitzindari izaten jarrai dezala industriaren, merkataritzaren eta ekonomiaren arloetan.

Azkenaldi honetan, duela hamarkada askotatik Nafarroan finkatuta dauden funtsezko zenbait sektore zaharkituta egotearen sintomak areagotzen ari dira; aldi berean, produktibitate- jaitsierak, lehiakortasun-galerak, eta, okerrera dena, enplegu-erregulazioko espediente-proposamenak, kaleratzeak eta are jardueraren behin betiko amaierak gertatzen ari dira.

Jabelduraren testua:

Nafarroako Gobernuari zuzendutako jabeldura, Foru Komunitateko industria-, ekonomia- eta merkataritza-ereduaren egoerari buruzkoa, bai eta Nafarroako egungo produkzio-jarduera merkatuak exijitzen duen modernizatzeari egokitzeko ahalmenari buruzkoa ere, epe ertain eta luzera enplegu egonkor eta kalitatezkoak ziurtatze aldera.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Guzmán Miguel Garmendia Pérez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du aniztasun, askatasun, ekitate eta aukeren berdintasunaren balioek izan behar dutela Nafarroako hezkuntza sistemaren ezaugarria, Hezkuntzako kontseilaria gaitzesten du, eta haren kargugabetzea eskatzen du.

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu aniztasun, askatasun, ekitate eta aukeren berdintasunaren balioek izan behar dutela Nafarroako hezkuntza sistemaren ezaugarria, Hezkuntzako kontseilaria gaitzesten baitu eta haren kargugabetzea eskatzen baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Duela urte askotatik hona, Nafarroako hezkuntza-sistema lehendabiziko postuetan dago nazioko eta nazioarteko rankingetan, halako moduan non Nafarroako hezkuntza Europako onenen artean baitago. Hori horrela da sistema osoaren kalitateari esker eta hezkuntza-erkidego osoaren ahaleginari esker: guraso-elkarteak, eskola kontseiluak, ikasleak eta, jakina eta bereziki, irakasleak.

Hezkuntza Departamentua, legegintzaldi honetan, ika-mika etengabea sortzen ari da Nafarroako gizartean, gehiengoari bizkarra emanez eta kaltetu nagusi diren Nafarroako hezkuntzako talde ezberdinei bizkarra emanez hartzen ari den neurri ezberdinekin.

Ingelesez Ikasteko Programaren analisi bat egite aldera hura geldiarazteko erabakiak kritika ugari jaso ditu hezkuntza-erkidegoan, programak

jarrai dezan exijitzeko manifestazio jendetsu bat egiteraino. Kontseilariak entzungor egin die eskari horiei, lehentasuna eman baitie interes ideologiko-
ei, ingelesez jakitearen egokitasunaren gainetik.

Azken urte hauetan, krisi ekonomikoarekin, beste zerbitzu publiko batzuek adinako kaltea pairatu du irakaskuntzak, baina susperraldia hastearrekin, iritsia da unea Nafarroako hezkuntza Europako hezkuntza-sistemen lehen postuetara berriro ere eramateko. Horretarako, beharrezkoa da kalitatezko sistema bat edukitzea, bai eta egoera egonkorrean dauden irakasle batzuk ere, gaur egun dagoen horrenbesteko behin-behinekotasunik gabe.

Egungo Nafarroako Gobernuak erabaki du lan-
eskaintza publikoa egitea Hezkuntzan, behin-behinekotasun hori arintzeko, ustez. Lan-
eskaintza publiko horrekin, ordea, hain zuzen ere Nafarroako hezkuntzaren ezaugarri diren aukera berdintasunaren eta ekitatearen aurka jotzen da; izan ere, lanpostuen % 70 euskarazko irakasleentzat eskaintzen da, Foru Komunitateko biztanleen % 20k hitz egiten duen hizkuntza bat izanik.

Lan-
eskaintza publiko horrek behin-behineko irakasle izaten jarraitzera kondenatzen du Nafarroako behin-behineko irakasleen % 80, horrek izan ditzakeen ondorioekin hezkuntzaren kalitateari dagokionez, eta konparaziozko bidegabekeria da, eta aukera murrizketa dakarkie Nafarroako irakasleei. Lan-
eskaintza publiko honek, gainera, ez du lanpostu bakar bat ere jasotzen gaztelaniazko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat, eta horrek desoreka handia eragiten du Nafarroako hezkuntza-sisteman.

Nafarroako hezkuntza-sistemako kolektibo askok adierazi du lan-
eskaintza publiko horren aurka dagoela. Nafarroako Parlamentuak ere hainbat ekimen onetsi ditu gehiengoan, lan-
eskaintza publiko hori erretiratzea eskatzeko.

Nafarroako gizarteak askotariko hezkuntza bat nahi du, inposiziorik gabe, gurasoek ikastetxea hautatzeko askatasunean sinesten duena eta ekitate nahiz aukera berdintasuna bermatzen dituen.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako mozio hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du aniztasunaren, askatasunaren, ekitatearen eta aukera berdintasunaren balioak direla Nafarroako hezkuntza-sistema ezaugarritu behar dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Hezkuntzako kontseilari Mendoza jauna, Hezkuntzako lan-eskaintza publikoari dagokionez egin dituen jarduketengatik eta entzungor egiteagatik Parlamentuaren agindu ezberdinei, zeinen bidez talde gehienek exijitu baitzioten lan-eskaintza publiko hori birpentsa zezan eta beste eskaintza bat egin zezan, orekatuagoa gaztelaniazko nahiz

ingelesezko eta euskarazko lanpostuei dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Hezkuntzako kontseilari Mendoza jauna kargutik kentzea bere departamentuan egin duen kudeaketa dela-eta, non Nafarroako herritarren eta ukitutako kolektiboaren gehiengoak arbuaitu dituen neurriak hartu baititu Ingelesez Ikasteko Programa geldiaraziz, nafar ikasleei ukatuz irakaskuntza publikoan ingelesez jakitea, bai eta eginiko lan-eskaintza publikoa sektario eta bidegabea delako.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Eleduna: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten du Hezkuntzako kontseilaria, Hezkuntza Departamentuko Enplegu Eskaintza Publikoaren deialdia dela-eta egin duen kudeaketarengatik eta hartu dituen erabakiengatik.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten baitu Hezkuntzako kontseilaria, Hezkuntza Departamentuko Enplegu Eskaintza Publikoaren deialdia dela-eta egin duen kudeaketarengatik eta hartu dituen erabakiengatik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hezkuntzako kontseilariak Parlamentuko Hezkuntza Batzordean egindako lehenengo agerraldian, 2015eko irailaren 22an egindakoan, non departamentuaren helburuak eta jarraitu beharreko lan-ildoak azaldu baitzituen, pertsonalki konprometitu zen Hezkuntza Departamentuan eginen zen lan-eskaintza publikoa urrian iragartzera.

Deialdi hori adosturikoa izanzen zen, hezkuntza-erkidegoarekin, irakasleekin eta sindikatuekin, Eskola Kontseiluaren iritzia entzun ostean.

Azaroaren 6an, Hezkuntzako Mahai Sektorialeko kideei jakinarazi zitzaizen lan-eskaintza publikoan maisu-maistren kidegorako 320 lanpostu eskainiko zirela; horietako 228, euskaraz, eta soilik 92 gaztelaniaz. Orobat eskainiko ziren ikuskaitzaileen kidegorako 14 lanpostu; horietako 7 zazpi, euskaraz, eta beste horrenbeste gaztelaniaz.

Sindikatu ez-nazionalisten erreakzioa berehala heldu zen, eta deialdia bidegabea eta justifikaezina zela adierazi zuten. Halaber adierazi zuten deialdia ez zettorrela bat ez Nafarroako errealitate soziolinguistikoarekin, ez Nafarroako hezkuntza-sistemaren beharrezanekin, eta irizpide politikoei erantzuten ziela.

Kontseilariaren iragarpen haren ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, adie-

razpen instituzional bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen baitzion Hezkuntzako mahai sektorialean azaroaren 6an aurkeztutako lan-eskaintza publikoa egiteko deialdia erretira zezan, eta Hezkuntza Departamentua premiatzen baitzuen euskararen eta gaztelaniaren egiazko oreka gordetzen duen lan-eskaintza publiko bat onestera eta deialdiko lanpostuak hizkuntzaz hizkuntza ateratzera. Halaber, hizkuntza bakoitzerako oposizio epaimahai bat egonen da, eta sortzen diren kontratazio-zerrendak hizkuntzen eta espezialitateen arabera bereiziko dira.

Kontseilaria saiatu zen bi hizkuntzen arteko lanpostu-kopuruan dagoen aldea justifikatzen, esanez Ingelesez Ikasteko Programa ezarri izanaren ondorioa zela; geroago, argudio hori egiazkoa ez zela ikusi zenean, atzera egin zuen.

Plantilla organikoen azterketa xehakatu egin ostean, zenbait parlamentu-taldek egiaztatu dute deialdiak ez zituela egiazko beharrianak asetzen, eta justifikaezina dela gaztelaniaz hain lanpostu gutxi ateratzea.

Departamentuak planteatutako deialdia guztiz justifikaezina da, bai maisu-maistren kidegoari bai ikuskatzaileen kidegoari dagokienez, eta ez du gordetzen Nafarroako hezkuntza-sistemako irakasleen euskarazko eta gaztelaniazko lanpostuen artean dagoen egiazko oreka.

Gainera, Hezkuntza Departamentua hartzen ari den erabakiek ehunka nafar behartzen dute Nafarroatik irtetera, Nafarroako hezkuntza-sistemak beharrezkoak dituen eta lan-eskaintza publikoan jasotzen ez diren lanpostu batzuk lortzen saiatzera.

Hezkuntza Departamentuak bere enplegu eskaintza publikoa mantentzearen zentzugabekeria dela-eta, Parlamentuak mozio bat eztabaidatu eta bozkatu zuen 2015eko abenduaren 10eko Osoko Bilkuran. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen hartu beharreko neurriak har zitzan lan-eskaintza publiko bat egiteko, behar adina baliabide bidera zezan eta neurri egokiak har zitzan irakasleek beharrezkoa duten

prestakuntzarekin jarraitu ahal izateko eta, besteak beste, beren borondateari jarraikiz ingelesezko C1 maila lortu nahi duten irakasleek maila hori lortu ahal izan zezaten, eta 2016rako aurreikusitako maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikoan 320 lanposturen guztizko eskaintza mantentzen zezan, bai eta lanpostuak hizkuntza ereduaren eta espezialitateen arabera banatzeko bere proposamena alda zezan, beharri zenei, enpleguen egonkortasunari eta funtzio publikoan sartzeko ekitateari erreparatuta.

Departamentuaren erantzuna abenduko azken egunetan heldu zen, Hezkuntzako Mahai Sektorialean, non bertan zeuden sindikatuei adierazi baitziren deialdia bere horretan mantentzen zela –azaroaren 6an iragarri bezala, hain zuzen ere–, eta urtarrilaren erdialdean onetsiko zela behin betikoz.

Gauzak horrela, Parlamentuko Eledunen Batzarrak beste adierazpen instituzional bat onetsi zuen 2016ko urtarrilaren 11n. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatu zaio birpentsa dezan enplegu eskaintza publikoa, zeinaren arabera lanpostuen % 70 euskarazko irakasleentzat bakarrik izanen baita, eta, orobat, eskaintza berri bat egin dezan, gaztelaniazko nahiz ingelesezko eta euskarazko lanpostuen arteko oreka baten arabera.

Hitz batean, lan-eskaintza publikoari dagokionez ez da ezer ere adostu –aitzitik, inposatu egin da–; Parlamentuan hartutako konpromisoari huts egin zaio, eta Parlamentuaren gehiengoak behin eta berriro adierazitako borondateari entzungor egiten zaio, deialdia bere horretan utziz.

Horregatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten du Hezkuntzako kontseilari Mendoza jauna, Hezkuntza Departamentuko lan-eskaintza publikoaren deialdia dela-eta egindako kudeaketarengatik eta hartutako erabakiengatik.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Eleduna: Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa eta neurri zehatz batzuk ezar ditzan, Nafarroako Erriberako langabezia-egoerari aurre egiten laguntzeko, Merindade horren garapen jasangarria sustatuz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa eta neurri zehatz batzuk ezar ditzan, Nafarroako Erriberako langabezia-egoerari aurre egiten laguntzeko, Merindade horren garapen jasangarria sustatuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Erriberan azken asteotan izandako gertakariak direla-eta, okerragoa da orain merindadeko enplegarritasun-egoera. Buñuelgo Almston enpresaren lantegia ixtea bezalako erabakiek –horren ondorioz, 103 langile joanen dira kalera– eta itxiera horrek enpresa osagarrietan berez daukan erasapenak ziurgabetasuna eta langabezia igotzea dakarte eskualde horretan.

Halatan, langabezia igo egiten da krisi ekonomikoak berariaz kaltetutako eremu batean. Hori guztia oztopo bat da milaka pertsonaren garapen

profesional eta pertsonalerako, mugatuta ikusten baitute langabezia egon ondoren lanpostu bat aurkitzeko aukera, eta beste horrenbeste gertatzen da lan-merkatuan sartu nahian dabilzan gazteen kasuan.

Nafarroako Erriberako langabezia-datuek argiro erakusten dute hori, erkidegoko beste eremu batzuekin alderatuta.

Kontuan hartu beharra dago Erriberako zenbait herriko langabezia-tasa Nafarroako batez beste langabezia-tasaren gainetik dagoela, eta beste zenbaitetan langabezia handia dagoela. Hori guztia errealitate mingarri baten isla da.

Egoera horretan, ezin dugu ahanzi Nafarroako Ubidea, Abiadura Handiko Trena edo Tuterako nekazaritza elikagaien hiria bezalako azpiegituren garapenak eskualde horretan enplegua sortzen lagun dezakeela.

Kontuan har dezagun, halaber, langabeziak gehien kaltetutako herriei eragiten diela Nafarroako Ubidearen proiektuak.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da Erriberaren indarguneetako bat dela bere kokaleku geografikoa –Bilbo eta Bartzelona arteko korridorea lotzen dituen Ebroko ardatza–, edo nekazaritzako elikagaien industria bera, zeinak beste sektore batzuek baino hobeki egin baitio aurre pairatzen ari garen krisi ekonomikoari.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa eta neurri zehatzen sorta bat ezar dezan, Nafarroako Erriberako langabezia egoerari ahal den neurrian aurre egiten laguntze aldera, merindade horren garapen jasangarria bultzatuz.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren Egunaren programa ofizialean sar dezan Xabierko Gazteluko basilikan San Frantzisko Xabierkoaren ohorezko ekitaldia egitea.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Nafarroaren Egunaren programa ofizialean sar zezan Xabierko

Gazteluko basilikan San Frantzisko Xabierkoaren ohorezko ekitaldia egitea. Mozioa 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita talentua itzularazteko politika bat

jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat. Mozioa 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2015-2016 ikasturtearen hasieratik 2015eko abenduaren 31ra arte Nafarroako ikastetxeetan “berandu sartzea” denaren bitartez hasi diren ikasleei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2015-2016 ikasturtearen hasieratik 2015eko abenduaren 31ra arte Nafarroako ikastetxeetan “berandu sartzea” denaren bitartez hasi diren ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zenbat ikasle hasi dira Nafarroako ikastetxeetan, “berandu sartzea” izenaz ezagutzen denaren bitartez, 2015-2016 ikasturtea hasi zenetik abenduaren 31ra bitarte?

Zehaztu bitez ikastetxea, hizkuntza eredu edo ikastetxean garatzen den Ingeleseko Ikasteko programa, nazionalitatea eta zer mailatan sartu diren.

Corellan, 2016ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, amaitu gabe dauden gaiak lantzeko Hezkuntza Ministerioarekin izandako bilerei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, amaitu gabe dauden gaiak lantzeko Hezkuntza Ministerioarekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide

Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak hainbat auzi dauzka Hezkuntza Ministerioarekin jorratzeke. Esate baterako, LOMCEren ezarpena eta garapena, irakaskuntza-lanpostuen betetzea profil zehatz batzuekin, eta abar. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Hezkuntzako kontseilariak edo departamentuko arduradunek izan al dute bilerarik edo helarazi al diete ekimenik Hezkuntza Ministerioko ardura-dunei, abenduaren 31ra bitartean?

Zein datatan? Zer gai jorratu dira? Zein izan da ministerioaren erantzuna?

Corellan, 2016ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun garraioaren esleipena duen enpresari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun garraioaren esleipena duen enpresari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

2015eko urriaren 1etik hasita, Servicios Socio Sanitarios Generales S.L. (SSG) enpresa arduratzen da Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun-arloko garraioa egiteaz, bera baita zerbitzu horren enpresa esleipen-hartzailea.

Hori dela-eta, honako galderari idatziz erantzutea nahi dugu:

– Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun-arloko garraioaren enpresa esleipen-hartzaileak betetzen al du zerbitzua emateko laguntza-kontratuaren administrazio-klausula partikularren orria?

– Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun-arloko garraioko zerbitzuaren enpresa eslei-

pen-hartzaileak betetzen al ditu lehiaketara aurkezteko baliatu zituen hobekuntza-eskaintzak?

– Bi kasu horietan, zeintzuk dira Gobernuaren arrazoiak eta jarduketak?

Corellan, 2016ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, programa-akordioan jasotako enplegu eskaintza publikoa dela-eta Osasun Departamentuak dauzkan aurreikuspen eta epeei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, programa-akordioan jasotako enplegu eskaintza publikoa dela-eta Osasun Departamentuak dauzkan aurreikuspen eta epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer aurreikuspen eta epe darabil programa-akordioan jasotzen den “berehalako” lan-eskaintza publikoa dela-eta, zeina programa-akordioan jasota baitago?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan dauden ikasle etorkinen kopuruari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan dauden ikasle etorkinen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zenbat ikasle etorkin dago eskolatuta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan? Aurtengo eta iaizko ikasturteko datuak jaso nahi ditugu, hizkuntza ereduaren arabera xehakaturik.

Corellan, 2016ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arauk, Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako bere ordezkari gisa izendatzekoak diren bi kideak hautatzekoak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 5. artikulua ezartzen du Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Tekniko bat eratu behar dela, agindu horretan esleitzen zaizkion eginkizunak izanen dituena. Aipatu foru legearen 5. artikuluko 2. idatz-zatian xedatzen bada ere Batzorde Teknikoaren osaera erregelamendu bidez zehaztuko dela, batzorde horrek Nafarroako Parlamentuaren ordezkari bat izan behar du nahi-taez.

Batzorde Teknikoaren osaera zehazten duen martxoaren 26ko 34/2014 Foru Dekretuaren 1.3 artikulua xedatutakoaren arabera, bi batzordekide Nafarroako Parlamentuaren ordezkariak izan behar dira, aipatu Legebiltzarrak libreki hautatuak.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.Bederatzigarrena artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena. Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikorako Nafarroako Parlamentuak bere ordezkari gisa izendatzekoak diren bi kideak hautatzeko arauak onestea. Hona testua:

1. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak eginen du hautaketa, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek banaka nahiz batera proposaturiko hautagaien artetik.

Gehienez ere bi pertsonaz, zilegi izanen dutenak foru parlamentari ez izatea, osatutako hautagaitzak aurkeztuko dituzte parlamentu-taldek eta foru parlamentarien elkarteek, aipatu Batzordeko Mahaiari zuzenduriko idazki baten bidez, eta horretarako epea 2016ko otsailaren 5eko 12:00etan amaituko da.

2. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeko Mahaiak aldarrikatuko ditu proposaturiko hautagaiak.

3. Bi batzordekideak aldi berean hautatuko dira. Horretarako, Batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak –titularra nahiz ordezkoa– zenbat ordezkari hautatu behar den, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean, aldarrikaturiko hautagaien artetik betiere.

4. Mahaiak boto-zenbaketa egin ondoren, boto gehien lortzen dituzten hautagaiak izanen dira Nafarroako Parlamentuko ordezkari Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikoko kide hautaturik gertatuko direnak.

5. Hautaketarako erabakigarria den berdinketa gertatuz gero, boto-kopuru bera lortu dutenen arteko bozketak errepikatuko dira, berdinketa hautsi arte.

6. Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari emaitza jakinarazita, horrek Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariari jakinaraziko dio aipatu Batzorde Teknikorako bi batzordekide-parlamentarien hautaketa.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jauna Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldean sartzea.

2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Rubén Velasco Fraile jaunak aurtengo urtarrilaren 11n idazki bat aurkeztu du Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldean sartu dela jakinaraziz. Aipatu idazkia ikusita, ondokoa ERABAKI DA:

1. Adieraztea idazki horren berri baduela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

